




"Orain ez dut ahoko mina, dentistan egon naiz"
Mohamed - 10 urte - Wilaya de Dajla, Argub



"Aquarium-ean arraia pila bat ikusi ditut, handiak,
txikiak, koloretakoak... oso polita da"
Jurdin - 10 urte - Wilaya de Smara, Tifariti



"Jaiak oso politak dira, batez ere, karruselak"
Tarba - 12 urte - Wilaya de Dajla, Tiniguir

ORAIN BI FAMILIA* DITUT

BAT SAHARAN ETA BESTEA EUSKAL HERRIAN

* Familia **pertsona** talde bat da, elkarren artean **senidetasun loturak** dituena

OPORRAK BAKEAN

Haur errefuxiatu sahararren udako harrera programa

Herri Sahararrak 40 urte baino gehiago daramatza errefuxiatu kanpamentuetan bizirauten, munduko basamorturik idorrenetako batean, euren lurraldera itzuli ezinik. Kanpamentu horietan 14 urtetik beherako 56.000 ume bizi dira, eta horietatik %30ek hazkunde gabeziak dituzte, klima gogorra eta elikadura baldintzen ondorioz.

Oporrak Bakean programak 10 eta 12 urte bitarteko haur sahararrak udan, bi hilabetez, euskal familiekin bizi daitezen sustatzen du.

Egonaldi horietan zehar umeak basamortuko baldintza gogorretatik urruntzen dira gerizpean 50^º arte heltzen diren (temperaturak), hazten ari diren adin honetan lagunduko dituen elikadura egokia jasotzen dute, azterketa medikuak egiten dituzte eta euskal kultura eta saharar kulturen arteko lotura sustatzen dute.

Euskal Herrian egindako egonaldien ondoren, haur horiek bi familia dituztela diote: bat Saharan eta bestea Euskal Herrian.

Zuk ere proiektuaren parte izan nahi duzu? Familiako kide berri batekin batera uda ahaztezin bat pasatu nahi duzu?

Informa zaitez!



oporrakbakean.eus

oporrakbakean@gmail.com

ARABA
665 711 947

BIZKAIA
658 751 359

GIPUZKOA
696 014 786

laguntzen du

antolatzen du

